



2023-2024
Ikasturteari hasiera
emateko ekitaldia
Acto solemne
de apertura de curso
2023-2024

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

2023-2024
Ikasturteari hasiera
emateko ekitaldia

Acto de apertura
de curso
2023-2024

Aurkibidea | Índice

1. 2022-2023 ikasturteko memoriaren laburpena, Unibertsitateko idazkari nagusi Aitor Zurimendi jaunaren eskutik.

Resumen de la Memoria del Curso Académico 2022-2023 por el secretario general de la Universidad, Aitor Zurimendi..... 5
2. Ikasturte hasierako hitzaldiak:
Lecciones de inauguración:..... 11

Aniztasuna eta mugak bizitzaren iraunkortasunerako. Hizlaria: Leire Urkidi andrea, Geografiako irakasle agregatua
Diversidad y límites para la sostenibilidad de la vida. Ponente: Leire Urkidi, profesora agregada de Geografía..... 12

Kaosa eta ordena munduko hizkuntza aniztasunean. Hizlaria: Iván Igartua, Eslaviar Filologiako katedraduna.
Caos y orden en la diversidad lingüística mundial. Ponente: Iván Igartua, catedrático de Filología Eslava 16
3. Euskal Herriko Unibertsitateko errektore Eva Ferreira andrearen mintzaldia.

Intervención de la rectora de la Universidad del País Vasco, Eva Ferreira..... 22
4. Eusko Jaurlaritzako lehendakari Iñigo Urkullu jaunaren mintzaldia.

Intervención del lehendakari del Gobierno Vasco, Iñigo Urkullu..... 28





2022-2023 ikasturteko
memoriaren laburpena,
Unibertsitateko idazkari nagusi
Aitor Zurimendi jaunaren eskutik.

Resumen de la Memoria
del Curso Académico 2022-2023
por el secretario general de la Universidad,
Aitor Zurimendi.





Lehendakari jauna,
errektore andrea,
Eusko Legebiltzarreko presidente andrea,
Hezkuntza sailburu jauna,
herri agintariok,
errektore jaunak,
Euskal Herriko Unibertsitatearen errektore
ohi andrea eta jaunak,
jaunandreok,
egun on guztioi.

PRESTAKUNTZA

Joan den ikasturtean 46600 ikasle baino gehiago izan genituen Euskal Herriko Unibertsitatean: 35800 graduetan, 3738 master ofizialetan, 3610 doktoregoan, eta 3500 etengabeko prestakuntzan eta esperientzia geletan. Ingeniaritza Biomedikoko Gradua onartu dugu eta lehenengo aldiz emango da, bai eta Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako gradu bikoitz berria ere. Bederatzi titulazio ditugu nazioarteko zigiluarekin eta hamasei zigilu dualarekin. Gainera, gure hogeikastegietatik hamaseik akreditazio instituzionalak dituzte.

Ehun master baino gehiago eskaintzen ditugu eta bik EQAR akreditazioa lortu dute, hau da, Europako agentziaren «European approach joint degree» akreditazioa, orain arte European 21 titulazio besterik ez dutena. Enlight partzuergoaren barnean, aurreko ikasturtean lehenengo «Blended Intesive Programme» koordinatu zuen Euskal Herriko Unibertsitateak. Gainera, Europako Batzordeak partzuergo horren proiektu berria hautatu du, ENLIGHT 2.0, Europako Unibertsitateen 2023ko deialdiaren espa-

rruan. Beste zortzi unibertsitate bazkideez gain, Bernako Unibertsitatea sartu da. Bestalde, mugikortasun programa batean parte hartu duten ikasleak aurreko ikasturtean baino % 8 gehiago izan dira, eta atzerriko unibertsitateetatik gurera etorri direnen kopurua % 21 igo da.

510 doktorego tesi irakurri dira, horietatik % 42 nazioartekoak. Etengabeko Prestakuntzan, titulazio berriak onartu ditugu, besteak beste, Agenda 2030ri eta Garapen Jasangarrirako Helburuei lotutako lanbide profilak sortzera bideratutakoa, Trantsizio Sozialaren eta Lehendakaritzaren 2030 Agendaren Idazkaritza Nagusiak bultzatua.

PRESENCIA EN EL TERRITORIO

Hemos creado 20 nuevas aulas universidad-empresa-sociedad, con las dos primeras aulas sociales, una con el Departamento de Salud del Gobierno Vasco y otra con la Fundación Síndrome de Down. Hemos realizado contratos con empresas por más de 11,5 millones de euros, creado 15 nuevas spinoffs y aumentado la producción anual de patentes y de licencias de explotación de tecnologías (106). Hemos participado en más de 80 foros empresariales.

Durante el curso pasado, en Araba se ha suscrito un convenio con la Fundación Vitoria-Gasteiz Araba Mobility Lab para crear la alianza estratégica Mobility Lab-campus, y desarrollar el proyecto «Territorio verde y sostenible», con una dotación cercana al millón de euros para los años 2023-2025. Y nos hemos adherido a la «Asociación Vasca de Robótica y Automatización», cuyo objetivo es convertir a Euskadi en un referente en este ámbito.

En Bizkaia, se han iniciado las obras de construcción del nuevo edificio de la facultad de Medicina y Enfermería junto al hospital universitario de Basurto. Asimismo, se han firmado acuerdos con ayuntamientos y asociaciones para desarrollar proyectos de viviendas solidarias.

Eta Gipuzkoan, «Etorbizuna Eraikiz» estrategia- ren baitan, Gipuzkoako lurraldearen etorkizuna irudikatzeko lagungarria izan daitekeen Gi2030 proiektua garatzen ari gara. Halaber, EGOkITU (Euskal Gazteen Orientaziorako Ikastaroa. Talentua Unibertsitatean) Udako Campusari esker 200 gaztek unibertsitatea ezagutzeko aukera izan dute. Era berean, Ateak zabaltzeko jardueren barruan, Iparraldeko Bernart Etxepare lizeoko 115 ikasle jaso genituen, eta ikasle horien % 20k gure unibertsitatea aukeratu dute goi mailako ikasketak egiteko.

DIVULGACIÓN E IMPACTO SOCIAL

Por otro lado, desde el foro EHUgune, hemos desarrollado varios debates sociales con la Agenda 2030 para el Desarrollo Sostenible como eje central, con una asistencia de más de 1000 personas. Hemos publicado 89 artículos escritos por 97 personas en la plataforma The Conversation que han recibido más de 2,5 millones de lecturas. Hemos generado 2,4 noticias cada dos horas en prensa, radio y televisión, y 3,3 noticias cada hora en soportes online. Hemos organizado los II Cursos de

Verano Transfronterizos, la XXII edición de la Semana de la Ciencia con más de 12000 participantes (5000 más que en la anterior edición) y la III Noche Europea de las investigadoras e investigadores, con 4300 estudiantes (1100 personas más que en la edición anterior).

Hemos celebrado la 6ª edición de los programas Campus Bizia Lab, con más de 450 participantes, que han desarrollado 34 proyectos de sostenibilidad. Hemos recibido la mención de honor de 2020 del Pacto Verde de Vitoria-Gasteiz por la EHUagenda 2030. Hemos organizado el V Congreso de estudiantes de la UPV/EHU «Nuestros Trabajos Fin de Grado sirven para transformar el mundo» en el que han participado 115 estudiantes con propuestas de TFG de 41 grados diferentes, así como el VII Encuentro Gaztenpatia con Euskal Fonda. En nuestro Programa de Prácticas y de Trabajos Fin de Grado en Cooperación al Desarrollo han participado 21 estudiantes de 6 centros que han realizado sus prácticas y trabajos en 7 países diferentes. Y en nuestros proyectos de innovación educativa vinculados con los retos sociales, han participado 14 centros y más de 50 titulaciones. Asimismo, el proyecto «Formula Student Bizkaia» logró el primer puesto en diseño de vehículo autónomo en Silverstone, en la prestigiosa competición Formula Student UK.

En materia de igualdad de género, se ha puesto en marcha el programa A-Leader para el PTGAS, con el objetivo de fomentar el lide-





razgo femenino, siguiendo el exitoso modelo de AKADEME para el PDI. Asimismo, nuestra universidad ha recibido el Accésit de los Premios Alares 2023 a favor de la Conciliación de la Vida Familiar, Laboral y Personal, y de la Responsabilidad Social.

KULTURA ETA EUSKARA

EHUKulturatik 103 ekimen sustatu dira aurreko ikasturtean hiru campusetan, Garapen Jasangarrirako Helburuekin lotuak. Unikoak programaren barruan «Uniaren ostean zer?» mahai ingurua antolatu da, 230 parte hartzaileekin, eta film laburren II. lehiaketa ere egin da. Loraldiarekin batera

Sormen Ola programa jarri da abian, eta bertan kulturaren eta artearen hainbat ordezkari tailer teoriko-praktikoak eman dizkiete gure ikasleei.

Gure Argitalpen Zerbitzuak 51 liburu argitaratu ditu euskaraz, eta Inpaktu Sozialerako Ikerlanen Akta (InpAkta) aldizkaria argitaratzea ere onartu da, zeinetan argitalpen zientifikoak elebitan argitaratuko diren, euskaraz eta ingelesez. Gipuzkoako Campuseko Errektoreordetzak Bikain ziurtagiria lortu du urrezko kategorian, eta atzerriko ikasleei zuzendutako euskarazko ikastaroetan 137 ikaslek hartu dute parte aurreko ikasturtean.





Gainera, gure Euskarazko Eztabaida Txapelketako irabazleak txapelkun izan ziren Eusko Legebiltzarrean egin zen unibertsitate arteko txapelketan.

INKLUSIOA

Este curso se ha evaluado el III Plan de Inclusión. En sus cuatro años de vigencia se ha atendido a 5.284 estudiantes. 1.148 estudiantes han participado en actividades solidarias o de voluntariado y 103 docentes han realizado labores como tutor de apoyo al estudiante vulnerable. Hemos impulsado la puesta en marcha de la Red de Escucha y Respuesta en nuestros centros, en la que participan 142 personas colaboradoras de las cuales 62 tienen formación específica Gatekeeper en prevención del suicidio.

Por otra parte, 42 jóvenes provenientes de los sistemas de protección a la infancia y adolescencia de las tres Diputaciones Forales han participado en el programa para el éxito académico universitario Arrakasta. Asimismo, hemos facilitado los trámites administrativos para el ingreso y continuación de sus estudios universitarios a 25 personas en situación de protección internacional procedentes de 9 países diferentes, dando cobertura a sus necesidades en el ámbito universitario.

IKERKETA

Bestalde, Shangaiko rankingak, mundu osoko 20000 unibertsitate baino gehiago aztertzen dituenak, 500 onenen artean kokatu du gure unibertsitate publikoa hamaikagarren urtez jarraian.

Proiektu lehiakorretan lortutako finantzazioa aurreko urteetako baino altuagoa izan da, 54,1 milioi eurokoa. Horietako 8,3 milioi euro «Horizon Europe» Europako proiektuei dagozkie eta beste 7,1 milioi PERTE edo «Next Generation» proiektuei. Euskal Herriko Unibertsitatearen ekoizpen zientifikoa jasotzen duen ataria ere sortu dugu. Bertan, unibertsitateko ikerketa jarduera ikusarazten da, bai emaitzen bai eraginaren analisiaren bidez. «Web of Science» datu baseko argitalpen kopuruari dagokionez, argitalpenen % 58 inguru lehen kuartilean izan dira, eta % 4 inguru lehen zentilean. Bestalde, gure unibertsitatean hilabetetik gorako egonaldiak egiten dituzten kanpoko ikertzaileen kopurua % 30 baino gehiago igo da.

PERTSONAK

Todo lo anterior ha sido posible gracias a la implicación directa de nuestros centros, departamentos, a los grupos de investigación consolidados y a 7771 trabajadoras y trabajadores (1953 PTGAS y 5832 PDI), cuyo proceso de consolidación en la plantilla ha avanzado firmemente. En el caso del PTGAS, se han puesto en marcha cuatro procesos selectivos que afectan a 1.148 puestos de trabajo. Irakasle eta ikertzaileen arloan, inoizko lan eskaintza publiko handiena onartu da, 285 lanpostu guztira. Gainera, langileen ordezkariekin hala adostuta, doktorego aurreko ikertzaileen soldata hobetu egin da.

Bestalde, unibertsitate barruan, komunikazio eta graduondoko planak onartu ditugu hurrengo lau urteetarako. Bestetik,



ikasleen falta eta zehapenei buruzko arautegia eta bizikidetzari buruzko arautegia onartu ditugu, unibertsitatea osatzen duten sektore guztien adostasunez. Horrela, gatazkak modu baketsuan konpontzearen aldeko apustua egin da, elkar entzutearen, bizikidetzaren eraikitzailearen eta bitartekaritzaren bidez. Aldi berean, gure barne prozedurak errazagoak izan daitezten, leihatila bakarrak ezarri ditugu hitzarmenak izapidetzeko eta gorako errekurtsioak aurkeztu eta ebazteko.

Egindako jarduera guztiak kanpoko beste administrazio eta eragile batzuen laguntza eta lankidetzaren emaitza ere badira, eta lankidetzaren hori aitortu eta eskertu nahi dugu. Eskerrik asko Eusko Jaurlaritzari, foru aldundiei, udalei eta gure inguruko eragile sozial eta ekonomiko guztiei.

Besterik gabe, eskerrik asko zuen arretagatik.

Ikasturte hasierako hitzaldiak:

*Aniztasuna eta mugak
bizitzaren iraunkortasunerako.*

Hizlaria: Leire Urkidi andrea,
Geografiako irakasle agregatua.

*Kaosa eta ordena munduko
hizkuntza aniztasunean.*

Hizlaria: Iván Igartua,
Eslaviar Filologiako katedraduna.

Lecciones de inauguración:

Diversidad y límites para
la sostenibilidad de la vida.

Ponente: Leire Urkidi,
profesora agregada de Geografía.

Caos y orden en la diversidad
lingüística mundial.

Ponente: Iván Igartua,
catedrático de Filología Eslava.



Lehendakari jauna,
Errektore andrea
Herri agintariok,
Klaustroko doktoreak,
Ikasleak
Lankide eta lagunok

Egun on guztioi, erakundeetako
ordezkariak, lankideak,

Gaurkoan, bizitzaren iraunkortasunaz arituko naiz. Gizakion bizitzaren iraunkortasunaz, bereziki, baina baita beste izakien bizitzaren mantenuaz ere; gurea, beste izakien bizitzetara lotuta dagoelako hari fin baina ezinbestekoen bitartez. Sakonki eko-menpekoak gara. Ezagutza kolektiboa denez, gai hau ikertzaile eta pentsalari ezberdinen ekarpenak josiz jorratuko dut eta gizarte eta giza zientzien ikuspuntutik, horiek nahitaezkoak baitira egungo ingurumen testuinguruan.

Pentsamendu modernoaren bilakaerak dikotomia zorrotz eta hierarkiko batzuen finkatzea ekarri zuen: gizona eta emakumea, gizarte eta natura, adimena eta gorputza. Gaur, ikusten dugu binomio horiek ez digutela mundua behar bezala azaltzen eta, are gehiago, oztopatu egiten dutela erronka nagusi batzuek behar duten erantzun holistikoa. Ser o no ser (un cuerpo) lanean, Santiago Alba Ricok dioenez, gure kultura gorputzetatik eta Lurretik ihes egitean oinarritu da, hein handi batean, noizean behin berriro beren baitara erortzen bagara ere. Egungo krisi ekologikoak gorputzetan, Lurrean eta bere mugetan lurrartzen dabilen jausialdi handia dirudi.

Mundu mailako aniztasun mota ezberdinen aldibereko galera batean murgilduta gaude: aniztasun ekologikoa, kulturala eta linguistikoa. Aniztasun bio-kulturala deritzonaren galeran finean. Bioaniztasunari dagokionez, 6. extinzio masiboan murgilduta gaude eta gizakiak Lurrean izandako eraginak aro geologiko berri bati hasiera eman dio: Antropozenoari. Dena den, kontzeptu hau ez da guztiz borobila, gure espeziearengan, bere osotasunean, jartzen duelako ardura. Eta jakin badakigu biodibertsitatearen galera eta ingurumen larrialdi globala mendebaldeko zibilizazioaren kontsumo eta ekoizpen moduen ondorio direla, neurri handi batean.

Krisi ekologikoak ertz asko ditu, baina badago arazo asko zeharkatzen dituen auzi bat: energiarena, hain zuzen ere. Energia ikusezin izateari uzten ari zaio, ondasun nabarmen gisa agertzeko; horren erakusle: klima-aldaketa, erregaien prezioaren gorakada, gasbideak edo proiektu eolikoak. Energo-politikaren aroan bizi gara. La energía y su gestión se han convertido en protagonistas en muchas áreas de nuestra sociedad: en cómo producimos, en lo que comemos, en cómo nos movemos, en cómo nos relacionamos con la naturaleza, e incluso en cómo imaginamos nuestro futuro. Desde el inicio de la Revolución Industrial, las economías del Norte Global se han basado en potentes fuentes de energía no renovable. Ahora que estamos experimentando los efectos de esa combustión masiva y la finitud de los combustibles fósiles, me gustaría poner la atención en tres cuestiones: los retos territoriales de una transición renovable, la equidad energética y la relación entre consumo y bienestar.



Sobre la transición renovable, cabe señalar que, si bien con los combustibles fósiles hemos tomado prestada tierra del pasado, las energías renovables consumen territorio actual. La transición energética tiene un impacto en los territorios y paisajes y compite con otros usos del suelo, tanto en la implantación de proyectos de generación como en la extracción de materiales para la tecnología renovable. El territorio, concepto clave en la Geografía actual, no es un mero soporte de nuestras actividades; se basa en equilibrios precisos entre cultura y naturaleza. ¿Podemos hacer una transición renovable respetando los equilibrios territoriales? La única respuesta es: depende. Depende de qué entendamos por transición y de qué entendamos por respetar los equilibrios territoriales y ecológicos. Una investigación publicada en Nature en 2018 estimó cuánta energía tendríamos disponible si la producción mundial de energía se realizara (1) por vías renovables, (2) de manera sostenible—respetando algunos de esos equilibrios— y (3) se repartiera equitativamente a nivel mundial. El consumo per cápita debería ser de 10,8MWh, un tercio de lo consumido por persona en la Comunidad Autónoma del País Vasco en 2021. El reto no es solo tecnológico sino principalmente social y cultural.

Sobre la cuestión de la equidad, un dato a nivel mundial: el 1% más rico de la población emite más del doble de carbono que la mitad más pobre. Eskualde askotan, ez dira oinarri-zko energia beharrak asetzen. Eta, gainera, energia erauzteak, garraiatzeak eta erretzeak pobretutako sektoreen bizi kalitatea ahultzen du. EKOPOL, EHUko gure ikerketa-taldeak urteak daramatza zor ekologikoa aztertzen, eta ikusi ahal izan dugu ingurumen desorekak mundu mailan gertatzen direla, baina baita gainerako eskaletan ere. Energia pobreziazen kontzeptuak hurbileko errealitatez hitz egiten digu.

Eta honek hirugarren puntura garamatza: energia kontsumoaren eta ongizatearen arteko harremanera. Berriki, Millward-Hopkinsek eta beste ikerlari batzuek 2050eko munduko biztanleria osoak bizitza duina izateko beharko lukeen energia kantitatea aztertu dute. Baina zelan neurtu bizitza duinaren osagaiak? Beraiek oinarri-zko beharrian unibertsalak zehaztu dituzte eta ondorioztatu dute horiek asetzeko 1960ko energia ekoizpen globala nahikoa izango litzatekeela, modu ekitatiboan banatuko balitz. Kantitate hori modu berriztagarrian sortu badaiteke, badirudi nahikoa baliabide



natural ditugula bizitza duina ziurtatzeko. Gure testuinguruan, beste ikerketa batzuek erakusten dute energia-kontsumoa nabarmen jaisteak ez duela zertan enplegu galerarik ekarri, baldin eta lana modu planifikatuan birbanatzen bada eta zaintzalanak aintzatesten badira —egun modu desorekatuan emakumeen gain daudenak.

Energia kontsumo maila baxuetan, edozein hazkundek du eragina bizi-kalitatearen adierazle hobekuntzan edo herrialdeetako Giza Garapenaren Indizean. Baina atalase batetik aurrera, ongizatearen pertzepzioan gai ez-materialek balioa hartzen dute, hala nola beste pertsona batzuekiko loturak, kidetasun sentimenduak, autonomiak, elkarrekiko zaintzak edo bizitzaren transzendentziak. Giza beharrak bio-psiko-sozialak dira eta gu izaki interdependienteak gara. Gizarte oparoenen gaixotasun mentalen mailak erakusten du kontsumo materialaren eta ongizatearen arteko erlazioa konplexua dela.

Hemos hablado de vida decente, de necesidades básicas, de calidad de vida. En el título me refiero a la sostenibilidad de la vida, pero ¿qué es lo que hay que sostener? ¿Qué es una vida digna? El debate entre necesidades absolutas o relativas o entre auténticas y artificiales es antiguo. Autoras como Martha Nussbaum proponen una serie de capacidades o libertades sustanciales para desarrollar

un vida digna y Carmen Madorrán presenta un decálogo de necesidades universales. Es complejo establecer un estándar global de lo que implica una vida que merezca ser vivida y cada una de esas necesidades universales son concretadas de diferente manera en cada territorio. Volvemos a la diversidad: no hay una única manera humana de habitar y el concepto de suficiencia es culturalmente construido. Sin embargo, debe basarse en principios éticos. En una aproximación más espacial, Val Plumwood dice que existe una ética del lugar; siendo el lugar ese espacio de significado colectivo donde nos sentimos parte y desarrollamos nuestra cotidianeidad. Esa ética nos lleva a cuidar nuestro lugar, pero sin que eso implique degradar los lugares de vida de otras comunidades o culturas.

Por todo ello, afrontar la actual encrucijada implica transiciones, en plural, que serán no solo ecológicas sino eco-sociales. ¿Cómo territorializar estos cambios? ¿Cómo concretarlos en entornos como el nuestro? Iparralde Globalaren testuinguruan, desazkunde materialeko etorkizuna aurreikusten dugu baina horrek beste eremu batzuk haztea ekar dezake. Badago aukera trantsizioak modu demokratikoan gauzatzeko, pertsona guztien bizitza erdigunean jarriz eta ondasun komunak areagotuz. Badago aukera gorputzetan lurreratzeko, gure kalteberatasuna onartzeko eta zainketak balioetsi eta birbanatzeko. Badago aukera gizarte lotu-

ren dentsitatea, lankidetza, sormena edota arteen gozamina zabaltzeko ere. Rebecca Solnitik azaltzen du krisi-uneak, ordura arte ezagututako normaltasuna bertan behera uzten dutenak, lankidetzarako eta zaintzarako uneak izan daitezkeela, zailtasunak zailtasun. Eta lankidetza horrek ongizatea dakarrela. Horretarako, Yayo Herreroen hitzetan, muga naturalekin bateragarriak diren desio ortzi-mugak sortu behar dira; bizitzaren iraunkortasunarekin koherenteak diren gizarte iruditeria berriak.

Bukatzeko, galdera bat: nondik jarraitu ikasten bizitzaren iraunkortasunaren bidean? Erantzunean berriro ere aniztasuna. Alde batetik, aniztasun kulturalak bizitzeko modu ezberdinak daudela azaltzen digu. Ezer idealizatu gabe, naturarekin harreman ezberdinak dituzten kulturetatik ikaspen kritiko baliagarriak atera ditzakegu. Beste aldetik, aniztasun disziplinarra: azaldutako arazoek begirada anitza eta disziplinarartekoa behar dute, eta gizarte eta

giza zientziak balioestea. Izan ere, bizitzaren iraunkortasunak gure gizatasunaren eta gure jendartearen oinarrizko balioen inguruko hausnarketa sakona proposatzen digu. Eta guzti honetaz hausnartzen, irakasten eta ikertzen jarraitzeko testuinguru egokiak sustatu behar ditugu, besteak beste, unibertsitate publikoa zainduz eta, bertan ere, bizitza duinak izateko baldintzak lehenetsiz.

Mila esker.

Benetako apustua egin da gure Euskal Herriko Unibertsitate honetan jasangarritasun arloan lehenik eta eragin sistemetan eta ereduetan bigarrenik. Oraindik bidea luzea da, baina EZINA, EKINEZ EGINA

LEHEN HALA ORAIN HOLA GERO ERAGINA NOLA

BIHOTZ-BIHOTZEZ MILA ESKER GUZTIOI





Lehendakari jauna,
errektore anderea,
hezkuntza sailburua,
Eusko Legebiltzarreko burua,
Espainiako gobernu delegatua,
Arabako diputatu nagusia,
Arabako Batzar Nagusietako presidentea,
Gasteizko alkate anderea,
errektore ohiak,
beste unibertsitateetako errektoreak,
herri agintari eta ordezkariak,
klaustrokideok,
jaun-andreok.

Nire lehen hitzak gaurko mintzaldi honetarako errektoreak bere garaian luzatu zidan gonbita eskertzeko dira. Aukera paregabe hau biziki estimatzen diot eskaini zaidan ohore handiarekin batera, alde batetik, eta, bestetik, nigan jarritako konfiantza akaso gehiegizkoa aitortu nahi dut. Ondorengo lerroetan saiaturiko naiz konfiantza hori erabat behintzat ez urratzen.

Aniztasunarena kontzeptu konplexua da, inondik ere, bere edukia bera bezain anitza, menturaz. Konparazioa onartzen —eta barkatzen— bazait, aniztasunak badu Heisenbergen ziurgabetasunaren printzipiotik zerbait. Alegia, aniztasuna behatu nahi dugunean, eta are gehiago sailkatu nahi badugu, aniztasunak berak ihes egin diezaguke, bere izaeran baitago nolabait sailkatze eta definizio murriztaileetatik kanpo mugitzea, ahalik eta modurik libreenean. Dibertsitatea, bestalde, oso maila ezberdinetan islatu daiteke: gizartean, noski, historian zeharreko gertakarietan, geografian zer esanik ez, baina baita maila pertsonalean ere,

gizakiok ez baikara beti eta une oro iritzi edo aldarte berekoak, ezta gure desio eta nahi barrenekoetan ere.

Gure gatazka eta kontraesan intimoetan oinarritzen dira hein handi batean artearen, filosofiaren eta literaturaren tradizio luzeak. Bikoitzaren gaiak, adibidez, identitatearen bilaketa eta are zatiketaren gaineko gogoetak bideratu ditu. Hiru besterik ez aipatzearren, hor dira, esaterako, Edgar Allan Poeren «William Wilson» ipuina, Dostoievskiren *Bikoitza* eleberria (errusieraz *Dvojník*) edo Borgesen «El otro» izeneko narrazioa. Erromantizismoaren garaian alemanieraz famatu egin zen *Doppelgänger* kontzeptua obra ugariaren azpian antzeman daiteke. XVIII. mendearen amaieran egile alemaniar batek (Johann P. Richter) honela definitzen zuen ideia: «so heißen Leute, die sich selber sehen», hau da, «horrela deitzen dira bere burua ikusten dutenak». Nork bere buruari begiratzeak ere aniztasunaren esparruan sartzea suposatu dezake, geure burua ikusteak garena eta ez garena, edo garenaren alderdi ezezagun eta gordeak, deskubritzea ekar dezakeen heinean. Nortasunaren identifikazioaren ordena kontraesan eta barne-gatazken kaosari gailenduko zaiola espero dugu maizenik, baina askotan ez da horrela izaten, gure natura uste baino konplexuagoa suertatzen baita. Horren erakusgarri ezin hobeak dira Fernando Pessoa idazle portugaldarraren heteronimoak. Pertsona baten batasun fisikoan zenbaterainoko aniztasun psikologiko eta sortzailea garatu daitekeen aditzera eman ziguten Alberto Caeirot, Alvaro de Camposek, Ricardo Reisek eta Bernardo Soaresek; alegia, Pessoa berak.

Hain eremu mugatuan diferentziak horren nabarmenak badira, espero izatekoa da distantzia handitu ahala, alde horiek are nabariagoak izatea. Eta hori gertatzen da sarri, baina ez beti. Izan ere, eleaniztasuna ez da berdin banatzen munduko bazter guztietan. Aitzitik, hizkuntza aniztasunaren banaketa kaotiko samarra dela ematen du lehen begi kolpean. Beste hainbat alorretan bezala, dena dela, hemen ere espero dezakegu kaos horretan ordena aurkitu daitekeela arrazoiren bati erantzuten dion heinean.

One of the ways in which linguistic diversity can be understood is through language density, that is, the number of languages per geographic area. Density varies a great deal depending on the region. In Europe around 200 languages are spoken nowadays. This might seem quite a lot, but is a really modest figure in comparison to language density in Papua New Guinea, for example, where almost 900 different languages are spoken, which makes up around 13% of the world's languages. Papua New Guinea occupies only 0.4% of the world's surface and its population is just 0.1%. By contrast, Russia, for instance, covers about 15% of Earth's surface and has almost 2% of the total population, but only 1.5% of the languages (see Table 1). As it happens, the differences in language density may be huge; in fact, Europe turns out to be one of the least linguistically diverse areas in the globe.


Table 1. Two regions compared (percentages with respect to global data).

	Papua New Guinea	Russia
Surface	0.4	15
Population	0.1	2
Number of languages	13	1.5

There are even more striking contrasts. The islands of Vanuatu in the Pacific ocean are home to 138 languages. Their total area is 12,000 km², similar to the extension of the province of Lleida in Spain, and the population is 320,000 people, just like here in Alava. But then there are up to 138 different languages there. This means, of course, that some of these languages are spoken by very small communities (even by less than 5 people now in several cases). The largest indigenous community, that of Lenakel, has only 11,000 speakers. No need to compare it with even small linguistic communities in Europe.


An observed fact about linguistic density is that it tends to concentrate around the equatorial and tropical regions. Over 60% of languages are spoken in those regions, and it seems that there is a rather close parallel with biological diversity, which also concentrates there. More than 80% of mammal and bird species are found in latitudes below the 30th parallel, both north and south. The maps here illustrate this appealing correspondence between language density and biological diversity.

